

## **Liburuak eta literatura izango dira protagonista Urretxun asteartetik aurrera**

Urretxu. Atzo Urretxuko eta Zumarragako Udalek antolatu duten Liburuak plazara! ekimena aurkeztu zen kultur etxean. Ekitaldian bi herrietako Kultura zinego-tziek parte hartu zuten: Jabier Otermin urretxuarrak eta Diego Calvo zumarragarrik.

Liburak plazara! asteartean hasiko da, helduentzat antolatu den ipuin kontaketa ikastaroko lehen klasearekin. Gainontzekoak hilaren 23an eta 30ean eta ekainaren 6an izango dira. Gaztelerazko klaseak 15.00etan hasi eta 16.15ean bukatuko dira eta euskarazkoak 19.00etatik 20.15era izango dira: guztiak Zumarragako udal liburutegian emango dira.

Ekimen honekin lotuta, ekainaren 7an, 19.00etan hasita, helduentzat ipuin kontaketa saioa izango da Zumarragako udal liburutegian.

Programako bigarren ekitaldia maiatzaren 18an izango da, datorren ostegunean. Egun horretan, Mikelazulo kultur elkarteko kideek poesia, narrazioak, musika eta pintura uztartzen dituen Erloju lehorrak ikuskizuna eskainiko dute. Saio hau 19.00etan hasiko da Urretxuko udal liburutegian. Maiatzaren 26an Felix Marañaren Oteiza tiembla dokumentala eskainiko da, 19.00etan gazteleraz eta 20.00etan euskaraz, Urretxuko Labeaga aretoan. Aurkezpenean eta solasaldian Marañak berak eta Jose Luis Padron idazle urretxuarrak parte hartuko dute.

Azkenik, ekainaren 2an Javier Ramos zumarragarrik Enrike Zelaia: infernuko hauspoa liburua aurkeztuko du, 19.00etan hasita, Urretxuko liburutegian. Ekitaldi honetan Ramos eta Enrike Zelaia akordeoilaria bera izango dira. >a.z.